

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Pamplona - abril - 1966

DIRECTOR: J. E. URANGA

## SAN MIGEL AINGERUA



Iruñeko ezkil eta txintzarri guziak, burnizko miekin, beren ongi-etorri pozgarria eman diote gure Menditako Aingeruari. Oitura den bezala, iri guzia ibili du: Erriko-etxean agintariak atera zaskio; gizon eta emakume, gaixo eta ezinduak senditu dute egun auetan asmo berri baten poza.

Bere egunean, Naparroko Jauretxeko Buruzagiak agurtu zuten. Naparroko bizimoduaren bideak, batez ere aldaketa auetan, argitu ditzen eskatu genion.

Giro berri auen joera, bere eskutik joanez, bai lurreko eta batez ere animako gauzentzat, mesedegarri izango dugu napartarrek eta gure itzalpera inguratzen ari diren guziak, Behartuenak izan dezatela artzekerik aundiena.

San Migel Goiaingeruak uzta eder batera ereman dezala gure Lndakari den Félix Huarte agurgarriaren asmo ta neke guzien amets zabala.

## AGUR ETA ONGI-ETORRI



Agur iru t'erdí urtez izana dan Naparroko Gobernadoría, On Jesus Lopez Cancio Jaun Txit Goienari, beregan daraman biotzondoko berbera gure artean utzirik, bere agintaritzaren antze, zuhurtasun eta zabaltasunarengatik. Napartarren zidako izan ditezela.

Ongietorri, Torenoko Kondea, On Francisco Queipo de Llano Jaun Txit Goienari, eta bide batez gure Errialdean ondorerik onenak izan ditzala opa egin dizkiotegu.



## MUNDU ZABALEAN

### RODESIAKO JAUNTZOAK

Rodesia aipu da ondar aste auetan. Inglaterraren mende egona, iñori esan gabe, buru gaineko uz-tarria apurtu zuen lengo azaroan. Nagusi zaharrak konponketa billa aztalak botarik ibili ondoan, diru bideak ere itxi nahi izan dizkiote; ibaia, alperrik dena. Berenarekin atera dira.

Rodesiak 400.000 km2 ditu; España baño zerbait txikiago, lau millon biztanle baño gutxiorendako. Oietatik 250.000 bakarrik dira txuriak.

Artoa, pipa-belarra eta makil-ari-ko azukeria biltzen dituzte. Lur erdia baso ta ohian dago. Ar-zulo aberatsen jabe dira; batez ere urre, amianto, ikatz-ari eta burnia ematen dute. Industri kontuan burnilantegiak, amianto eta porlanenak dira aundienak.

An gertatua, lau txuri oien isti-

lluua besterik ez da. Gutxi izanagatik, denen jaun ta jabe izan nahi berak. Ez aitzerik ere nahi beren eskubide eta erraztasunak beltzeri ematea. Rodesiako jauntxoak izan nahi dute.

### NATO ZALANTZAN

Joku txarra egin dio Frantziak delako NATO elkargoari, eta eragin gogorra De Gaulle ateratzeak ematen diona. Europako indarrak, Kanada eta Ipar-Ameriketakoekin batera, izen onen inguruan bildurik zeuden. Ego aldekoekin edozein joan-etorri sortzen balin bazen elkar laguntzeko asmatua zen. Eta orai zer?

Mosku aldean begitan zuten eta, al-guzia Europa eta Ipar-Amerika elkarrengandik berexteko azia ereinez eldu ziren aspalditik. De Gaulle ostikotz pozik ikusiko ziren oraikoan.

Durante las últimas semanas se ha hablado principalmente de Rhodesia y de la NATO.

¿Qué ocurre en Rhodesia?

Rhodesia, situada en el Sur de Africa, es una nación que pertenece a la Comunidad Inglesa y que en el último mes de noviembre proclamó unilateralmente su independencia. Inglaterra no ha conseguido que las cosas volvieran al estado anterior a pesar de haber decretado el bloqueo económico del citado país.

Rhodesia tiene una superficie aproximada a 400.000 kilómetros cuadrados, es decir, algo menos que la superficie de España. La población no llega a los 4 millones de habitantes de los cuales solamente 250.000 son blancos y los demás negros. La lengua oficial es el inglés aunque se usan muchos dialectos indígenas.

En Rhodesia se cultiva el maíz, el tabaco, y la caña de azúcar. La mitad de la superficie está cubierta por bosques. Tiene una gran importancia la riqueza mineral sobre todo las producciones de oro, amianto, carbón, hierro, etc. La industria principal es la siderurgia, las producciones de amianto y cemento y las manufacturas del tabaco.

El verdadero problema de la independencia de Rhodesia es que la pequeña minoría de población blanca no está dispuesta a reconocer iguales derechos políticos a la gran mayoría de población negra.

\* \* \*

En la NATO se produjo un momento de peligro cuando Francia amenazó con retirarse del citado Organismo. La NATO es una organización que asocia a una gran parte de países europeos así como a Canadá y Estados Unidos. El objeto de esta organización es la defensa de todos estos países contra toda posible agresión. Los países del bloque comunista aspiran siempre a desorganizar la NATO debilitando en lo posible los lazos de amistad entre Estados Unidos y los países europeos.



## ESPAÑA ALDEAN

Noizbait atera dute itsaso azpian zen mila kiloko atomika. 80 egun bazituen an zela. Atsegin artu dute Palomares'ko jendeak. Lenbiziko aldia izan da tresna auetako bat fotografiatzen dena. Hirosimakoa baño ehun aldiz azkarragoa izan behar du, naski.

Idazkaritzako lege berria (Ley de Prensa) emana da. Bere mamia bitzetan sartzen da: askatasun gehiago, tentu aundiokoaren menturan.

Langilen eskubideak indartzeko ta finkatzeko legea onartu dute agintariek. Sendagitza, ots medikutzako gauzak, zahar eta ezinduenganako laguntza eta famili-sariak ikutzen ditu, batez ere. Ez omen du baztarrean utzia nekazarien laguntzeko asmoa; aspaldiko kontua.

Diru gauzetan, beharrezko guzien goraka joate ura moztu dutela zion, eginkizun auetan buru egiten duen gizonak.

Bizkay aldean ere petroleo ateratzen asi? Diotenez, Bilbo'tik 125 kilometrorra izango da; Burgos'ko Ayoluengora ainbat bide.

Elektrikak azkarki goratzen ari dute beren indarra. Duela urte bat baño, bostetatik bat gehiago egiten izan behar dute.

Berri guziak batera dijoaz: "mail-goraketa" delako (Plan de Desarrollo) -ko giroak bizi-neurria astindu duela, industriari indar berriak eman eta, egiñak diren errien inguruan sartzen ari gerala.

Al fin fue extraída del fondo del mar la bomba atómica a los 80 días del accidente ocurrido en Palomares. Con este motivo todo el mundo ha contemplado por primera vez la fotografía de uno de estos ingenios cuya capacidad mortífera es 100 veces mayor que la que destruyó Iroshima.

Ha entrado en vigor la nueva Ley de Prensa cuyo contenido puede resumirse así: Mayor libertad y por lo tanto mayor responsabilidad.

El Gobierno aprueba el nuevo texto de la Ley de Seguridad Social que reúne y moderniza todas las disposiciones protectoras del trabajador. Esta Ley se refiere entre otras cosas a la asistencia médica, a las pensiones de vejez e invalidez, a la rehabilitación de inválidos y a la ayuda familiar. Por otra parte sigue estudiándose en las Cortes la Ley de Seguridad Agraria que se refiere a la protección social de los trabajadores agrícolas.

El Ministro del Desarrollo Económico informa que se ha conseguido una estabilización de los precios en el mes de marzo.

Se descubre al parecer un yacimiento de petróleo en el Golfo de Vizcaya a 125 kilómetros de Bilbao, es decir, la misma distancia aproximadamente que el Pozo de Ayoluengo (Burgos). La producción de energía eléctrica aumenta en un 20% con relación al año pasado en la misma fecha.

En general todas las informaciones coinciden en afirmar que el Plan de Desarrollo Económico ha elevado sensiblemente la renta nacional, que se ha dado un gran paso en la industrialización y que el despegue de España hacia un nivel de país desarrollado es ya un hecho.



Nafarroko Diputazioak lengo Nafarroko Diputazioaren Lendarik zian On Mikel Gortari eta Errea, "Nafarroko Seme Berezi eta Kutuna" izendatu du.

Gortari jaunaren Agintaldipean "Principe de Viana" ikasgoan beste talde berri bat sortu zan "Euskeraren Aldeko Talde, edo Sailla" deritzana eta Euskal Aldizkari au argitaratzen duena.

Bereziko une ontan ordu ona da Euskeraren Aldeko Saillak bere zorianik biotzkorrenak Gortari Jaunari biatzeko.



## MERKATVAK

### ELIZONDO

Denbora batez Elizondoko Apirileko ferietan yende aunitz biltzen eta garai artan udaberriko feri auek fama bazuten eta yendeen artean errete aundia ere. Baztango iri nagusian biltzen omen ziren, Baztan, Bidaso, Lapurdi ta Baxenabarreko euskaldun yendeak, merkaturako azienda ikusi bidenabar laguneren artean egun goxo bat igarotzera etortzen zirenak. Leku guzietan bezala emen ere biziak aldakuntza aundia egin du eta feri ta amabostaldiko merkaturak ere beiti doazi emeki emeki akitzen ari direla, baina ala ere ferietako izen orrek irauten du eta yendeak ere lagunarteko billerak maite baititu olako egunetan beti nabari izaten da merkaturak ta ferietan usaña. Aurtengo feri oiek Apirileko 15'ean izan ditugu eta yendea ibili da bai bainan ez sobera. Merkaturako plazan bazen mota guzietako azienda, Iruñeko tratulariek ere esne-bei ederrak erakutsi zituzten, zenbaitzuk beren umeekin eta oietarik ere bakar batzuk saldu zituzten. Prezioak goan den merkaturak bezalatsu.

Baztango aratxeak onak direla eztago erran bearrak eta fama ori leku guzietara barreiatua da. Urtero urte gure alderdi untatik 2.000 buru ateratzen omen dire eta geientzuenak Iruñe, Irun ta Donosti aldera omen doazi. Baztandar nekazariak badakite aratxe azten eta lanpide ortan ez tute berdinek, ori egia dela eztago ukatzerik. Jarraiki ortan, nekazari maiteak, zuen izen onak irau denzan.

Maiatzeko ondar egun oietan eta Diputazioak antolaturik, Baztan alde untan azienda sariketa edo norgeiagoga egin gogo omen dute. Baztandar nekazariak beren azienda oberenak prestatzen ari dire eta segur naiz ederrak eta klase onekoak erakutsiko dituztela. Suerte on bat izan dezatela eta saria ere merexi duenak erdietsi dezala.

### IZETA

#### DONEZTEBE'KO AMABOSTALDIKO AZOKA

SAL NEURRIAK. — Bizitzako abereak: beiak esneta edo ernari, 25'tik 35.000 pezetara; bei gazte edo miga, ernariak, 22'tik 28.000'tara; zerri bargoak 1.800'tik 2.600'tara eta zerrikumeak, 800'tik 1.000'tara.

Aragitakoak: beia, 28'tik 31 pezetara kilo bizirik; txekorak esnetakoak, 52'tik 55'tara eta aundiagoak, 42'tik 46'tara; zerri gizenak, betakoak, 29'tik 31'tara eta «York», 32'tik 34'tara; ardi zarrak, 24'tik 26'tara eta bildotxa, 50 pezeta. Pazko inguruko egunetan, bildotxa ordaindu zan 54 pezetan kilo.

Nekazalatan, alde batetik poza nabari da aukerako denbora dijalako beren belaietako, eta belar asko sortu dalako. Beste aldetik, marmari batzuek ere asi dira: ia eraintzako denbora etorri dala ta euriak, atertu bear lukela. ¡Auxe bai ez dala gaurko errenkural! Noiz ikusi da danen naierara euri egiten?

## Iruñeko bi egunkari euskeraren onez

Iruñeko «El Pensamiento Navarro» eta «Diario de Navarra» euskeraz idatzitako izkribulanak argitaratzen asiak dira.

«El Pensamiento Navarro»-k, asteazkenoroz, bere «Zaldiko-Maldiko» izena duen orrialdean idazlan bat argitaratzen du, iao eta argi den Aita Karmeldar Olabarriak idatzia.

«El Diario de Navarra»-k, arestitxoan, illeoroz bi aldiz, illaren lenen

eta irugarren ostegunetan, «Nafar Izkuntzaren Orria» izenezko orrialde bat argitaratzen asia da. Eguneroko onek ere Lenen Maillako Eskolategiko adinean aurrentzako euskerazko ipuin edo erri-kontuen Norgeiagoka bat antolatu du.

Iruñeko bi Egunerokari oiei gure biotzeko eskerrak eta pozezko eza-gutzak adierazten dizkiegu.

## BAZTAN ESPAÑIAKO ERDIAN



"BAZTAN BERRIA" ERRIKO ELIZA


Madridetik berrogei kilometrorra «Baztan Berria» izenezko errrika dago. Arizkongo Yoan Goienetxek 1709-1713 urteen artean iragi zuen berinak egiteko lantegi bat eraikirik. Erri au Madrideko probintzian kokatua dago, Lochestik urbil. Jose Benito Txurrigera etxegille eta argimaixu famatuak asmatu eta egin zuen.

«Baztan Berria», emezortzigarren mendeko etxegintza barrokoaren eredu zko tankera zoragarri bat da.

Baztandar Iraslearen Jauretxeko aurrekoaldeak Baztango Batzararren Armarrria agertzen du.

«Baztan Berria»ren Eliza Xabierko Prantzisko Sainduari eskeiña dago, eta gure Nafar Sainduaren arrizko iduria aintzinaldeko arresizulo nabarmenean ikus diteke. Beste Xabierko Prantziskoaren irudi bat bada Elizako Aldare Nagusian. Bi irudiak Txurrigerak egiñak dira.

Yoan Goienetxe Arizkongo Ordoiki auzoko «Goienetxe» izena duen etxean sortua zan. Nafarroko Beltzuntze Jauna, Farnesioko Isabel Erregiñaren diruzaina, eta «Baztan Berria» erriaren Iraslea izan zen. Bere oroitzarrean idazlantxo au izan dedilla.



## NAPARROKO BERRIAK

La Diputación despide al Excmo. Sr. Don Jesús López Cancio, hasta ahora Gobernador de Navarra.

Es nombrado Delegado del Ministerio de Información y Turismo en Navarra don José Antonio Ferreiro Piñeiro que sustituye a Don Jaime del Burgo, actualmente Director de Turismo, Bibliotecas y Cultura Popular en la Diputación de Navarra.

Es noticia de gran importancia la decisión de la empresa Luzuriaga para establecerse en Tafalla al amparo del Programa de Industrialización de la Diputación Foral y de las ventajas concedidas por el propio Ayuntamiento. Creará cerca de 1.000 puestos de trabajo.

El Ayuntamiento de Tudela crea un polígono especial para instalación de granjas e industrias agrícolas y ganaderas. También en Tudela empieza la construcción de la Estación Hortofrutícola cuyo objeto es seleccionar y comercializar las frutas y productos de huerta en las mejores condiciones y aprovechar los productos no seleccionados para industrias derivadas.

También en Tudela van a empezar enseguida las obras de cubrimiento del río Queiles, que tantos disgustos ha causado con sus inundaciones.

Algunos pueblos navarros empiezan a preocuparse por sus planes de urbanismo. Entre otros Santesteban y Alsasua. En Pamplona la Caja de Ahorros empieza la construcción de viviendas sociales en el polígono llamado del Plan Sur.

Han comenzado ya las grandes obras de desviación de carretera por los pueblos de Arrazu, Arbizu y Lacunza en la Barranca.

Se termina en fecha próxima el Hotel de Olite dentro del Castillo y asimismo se anuncia la subasta de un gran hotel en Isaba (Valle del Roncal).

Navarra con su Universidad ha alcanzado un plano superior en el mundo de la cultura. Se anuncia para el mes de junio un Congreso Nacional de Medicina Interna.

Se reciben muchas adhesiones y suscripciones a este suplemento de Príncipe de Viana lo cual nos indica que el amor al vasco está vivo en nuestra tierra.

Orai arte Gobernadore izandako Lopez Cancio jaunari Diputazioak bere azken agurra egin dio. Delako «Información y Turismo-ko» sailak zuzendari berria du Nafarroan, Jose Antonio Ferreiro Piñeiro jauna izendatu dute Jaime del Burgo jaunaren plazan.

Pasaiako Luzuriagak burnilantegi aundia sortzen du Tafallan. Diputazioak emandako erraztasunen arrimora eldu da. Milla langilek lana izango omen dute. Erlategi aberatsa.

Tudela aldean ere ez dira lokartzen. Lurralde bat eman dute, edo berexi beintzat, lurretik datozen fruituak eta aberetegiak moldatzeko behar diren istilluak ezarri ditzaten. Fruitu ori bera aukeratu ta mailla egokian jartzeko behar diren guziak egiten asiak dira. Azkenekotz, Keiles zalaparta gaiztoko ibai txar ori estaltzeko lanak egun batek bestera asteak izan behar dute. Begien bistatik kendu nahi dute eta arrazoi aundiarekin.

Erribera aldetik Mendi aldera jotzen balin badugu, geroko kale eta erri-edertzearen lerroak markatzen asten diren erriak baditugu: ots, Doneztebe (Santesteban) eta Altsasu. Iruñen, «Egoaldeko sayoa» (Plan Sur) deitzen duten jokabidean egiten asteak dira langileen bizitegiak, «Caja de Ahorros» en babesean.

Arrazu, Arbizu eta Lakuntza arinduko dituzte oraikoa, bideberria erriatik ateratzean. Enantzo aundiarekin asi dira lanean. Zorionak.

Olite, —euskeraz Erriberri'n— Gazteluko Hotel aundia bukatua bezala dago. Isaban asteak dira beste bat.

Nafarroko Ikastetxe Nagusia gain-gaineko maillara eldu da. España guziko «barru-sendagitz» (Medicina Interna)ko batzarrea egitekoak dira aurtengo garagarrian.

Zuzenbide, eta aldizkaria artu nahi dutenen izen asko eskuratu ditugu. Gure artean euskaltzaletasuna bizirik dagola agertzera ematen du zuen nahikeri pozzgarri onek.

## Zorigaiztoko "H" bat

Bi aldiz baizik ez da atera «Príncipe de Viana» eta, istillu batzuk sortzen asiak ditugu, gure artean. «H» madarikatu bat agertzen asi omen da ta, ori ez dela bidea...

Berri ona da; leitzen gaituztelako marka. Euskerazko aldizkari baten-dako gauza aundia. Bestalde, dena esan behar da, etzaigu ain pozzgarri iduritzen batasunerako duten nagikeria. Goazen piskaka.

Etzen bakarra jaun arrena; baño, bai zorrotz esana. Orai emango diot orduan aditu nahi izan etzuen erantzuna. Bi alderdiak ezagutzeko, ona emen bere itzak: «zer «H» eta zer zikinker! Erraz-alde jo ta ere aski lan izango du euskerak. Esaten ez diren guziak kendu eta kitto! Erderaz egin behar litzaken bezela...»

Utz dezagun erdera alde batera eta goazen gure etxeokarekin orai. Baziren bi anai, bat aberatsa eta, nun ilik etzuen beste. Onk etzakien zer zen dirua, baño bazuen osasuna. Aberatsak osasunik ez. Beren kisa bizi ziren biak.

—Aizak, il —esan zion, egun batez, aberatsak—; gaizki gaudek ala. Gure etxearen izen onarengatik elgarretaratu behar diau eta bat egin. Badiat nik dirua, irekin izango diau osasuna.

—Zer diru eta zer zikinker! Ez diat ire beharrik. Erraz-alde jo ta ere aski lan badik zama eremateak...

Gure asmoa Nafarroko eskualdun famili guzitan sartzea da, eta ez ifior baztartzea. Nafarroan bi joeretako eskualdunak ba-gira: 'H'dunak, eta gabekoak. Anaien arteko batasuna nola egin ginezake? Duenari erabat kenduz? Eztuenari lagunduz?

Aberatsaren eskua zabalik dago: zar eta zahar, bi dira biak. Arik (hilo) eta ahari'k (carnero), ez dute elgarrekin ikustekorik. Berdin gertatzen da zur (madera) eta zuhur'ekin (recto, prudente).

Eta Erronkari aldean 'H' ori gogorrago markatzen zuten. Hori (ese), Erronkari'n 'kori' zen. Hemen, kemen.

Alderdikari izatea laike erabat alde batekoekin edo bestekeekin joatea. Bide erdi bat badago: bakoitzak beretik eskinak berdintzea. Artu, esate baterako, guk 'H'bat (eman dezagun bokal artekoa); eta utzi, beste alderdikoak, gutxi balio duen beste bat (urthe, senhar eta modu ortakoak). Batasuneko bidean pausu bat emana legoke.

Aberastu nahi eztuenak, pobre izateko bidea merke du.

SAGI

# ERRIZ-ERRI

## ARANAZ

Badauzka Naparroak txoko aunitz eta txokoetatik txokoeratuene-tatik batek bere burua aldizkari onen zirrigo batetik ateratzen du gaur.

Irakurle guztiei agur.

Erri guzien araura, munduko martxak emengo pakea eta bizi modua dardaratu du eta kezak, ametsak ta egiñak jaio dira.

Iruetanogei ta amabost kilometro Iruñetik eta zazpi karreteratik, aurkitzen da Arantza. Ez da arritzekoa bere kezak badituela-ta: eun ta berrogei baserri edatuak erritrik urrun eta bide nekosuekin. Denak nekazariak bañan etxealde exkaxak, familia yoriak.

Ahatik biziari aurpegia emateko, kezka ok beren ametsak ekarri zituzten. Fama aundia du Arantzak kampa ateratzen direlakoarena: karreteratik urrun, fabrikatik ez errian, yende aunitz, toki gutti, lanik ere ez... atera bearko. Lenago yotzen omen zuten Ameriketara; orai gelditzen dira urbiltxago: Gipuzkoak eta Frantziak daramazkite geienak.

Alare beren erria oraindik ez dute utzitzen, ez da baserrik aise usten. Gaur nai lukete denendako etorrera bereuntan billatu. Gazteria kampa doaie diru pixka baten billa, ahal bada gero emen bizitzeko; iruogei ta amar mutil mendietan, berze amar Ameriketara artzai, berze ogei bat fabriketan asiak; okekin batian berze ogei gizon ezkonduak lantegietara, etxera egun guziz etorritz Lesakatik edo Beratik. Neskatxak ere amets beraikin baduazi kampa, batzuek urte guziko, bertzeak udako, geienak Franzira, gañerakoak Gipuzkoara. Eun eta iruogei gazte urte geienian erritrik falta. Gañerakoak errian, Eliza ta Erriko Etxearen inguruan, beren lanetan, beren baserriari yarraikitzen.

Ordea bizi modu au ez dala betikoa izaten ahal garbi aski asmatzen dute: mendia urte gutxikoa da, nes-

katokoa ere bai. Eta Arantzako erria bertze bide bat prestatzen asi da, biarko egunean urbillago ta aisago bizitzeko: aurrek xuxen eskolatera, batzuek eskola baño gexago ere bai; mutillak ongi ikusita-ondoan beren biziia ta gerokoaz oroituz, elkar artu dute eskola bat berendako izateko eta Diputazioaren-ganik laguntza ere bai erdietsi eta iruogei ta amar mutil neguan etorri dira egun guzian eskolara txandataua adiñen-adiñeok. Gañera amar goan den urtean eta sei aurten dabilta Irunen «Curso Acelerado» ori egiten.

Kampora errikoak laguntzeko, errian etxeari kontu egiteko eta aur ta gazte biarkoaz oroituz, denak Jaungoikoaren laguntzarekin mundua obeagotu naiez, zuen anai eskualdunak Arantzako txoko on-tatik agur!



## BAZTAN

LEKAROTZKO ESKOLATEGIA-REN BERRITZE ETA ZABALDURA

Lekarotzik albiste onak etorri zaizkigu. Jorriaren 26 egunean Lekarotzko Eskolategi berriko lenbiziko arriaren paratze-eguna ospatu da. Au dela-ta bestak aundiak izan dira: Donostiko «Real Sociedad» futbolaldea Iruñeko Osasunan kontra arizanar dira, Donostiko Schola Cantorum batasuna bere kantu eta euskal dantzekin aritu da, Iruñeko Soldaduen Soñutal-deak soñujoaldi bat eman du, era askotako kirolak, bazkaria, Meza Nagusia jakiña, dena bear den bezelako moduan.

Urrengo lumeroan besta onen berri xeatuagoak emango ditugu.

Aita Kaputxinoek badakite gauzak ongi egin!



## LESAKA

Lerro ok idatzi baño minutu zonbait lehentxeago adituketu dut bi gizon-emazten arteko solas au: «Bai; eskola beharrezkoa da; gaurko egunean sekulan baño geiago»; «eskolarik gabe ez dezake inork pauso bat ere zuzen eman; gure aur denboretan etzen oraingo kezkarik, ez baitzen olako beharrik ere». Nere baitan pensatzen nuen, egirik nonbait erran bada, delako solasean ari ziren oriek zerratela.

Kultura eta yakiteari buruzko kezka ta errankure ori, ez da yende xumearena bazkarrik. Erri-gizon eta lantegi-buruzagiak ere yo ditu; frankotan beharrik bortxatu baditu ere. Ez da bertze solasik mundu zabalean, egunkariak irakurtzen badira; U.N.E.S.C.O. eta Vaticano Biltzar Nagusia, eta gure artean Diputazio ta Ayundamenduak; batzuek gizonaren eskubideak zaitu ta begiratu nahiean, bertzeak beren errialdeen onagatik kezka gorrietan.

Ondarreko aldiaren genion eskolik gabe etzitekela ez yende eskolaturik, ez langille teknikaturik. Naparroko bertze zonbait lekutan egiten ari direna, egiñen da emen ere, Bidasoko txoko ontan: LANBIDE- IKASTETXEA (Escuela Laboral). Erran dezakegu ortarako behar diren bideak ongi egin direla. Bortz Irietako Ayundamenduak ibilliak dira Diputazioan gaidik. Emen onartu dute Ayundamenduen asmoa eta eskaria. Zein herritan egiñen den delako eskola ori, erabakitzekoa dago oraindik; ez degu deusen berririk adituketu. Bidasoko Beran? Omen; balitake.

Ez ote dire xahar samarrak Bortz Irietako yendendako orain ematen ditugun berri oriek? Aspalditxo ontan bagenezkin. Berriagorik ez dabil inon. Ez dut uste aurra sortu baño len, ill denik. Ikusiko; ge-roak erranen.

# AINGERUA IBILKARI



urtera are geiagotzen eta beroagotzen dijoala esan genezake. Benetan ikusgarria da errietako jendeak Aingeruari egin oi dion arrera ta abegia: erri geienetan egun ori urteko jairik aundienetakoa da: egun ortan mutsutu oi dituzte neskatxak beren soñeko ta apaingarriak eta aurtxoak beren jantzi ta zapata-txoak. Aingerua urrutitik agertzen daneko, ezkillak asten dira dilindalan, din-dan boieran, ezkillots alaiean biotzak pozten dituztela. Erri osoa, apez eta agintariak buru direla eta eliz-gurutzea aurretik, bidera ateratzen zaite Aingeruari, gozoz eta biotzez kantatzen diotela:

Migel, Migel, Migel gurea gorde, gorde Euskalerrial!

Aingeruaren ibillaldi ontan aldakuntza nabari bat egin zan igaz (joan den urtean): ordunartio oñez eta mando gañean egiten ziren bideak, igaztik automobillean egiten asi ziran.

Betidanik ezagutu dugun oitura zar au galtzeak min aundia eman digu. Baño gauzak orotan aldatzen ari dira ta ontan ere aurrerapideak eta obeki bearrak berea egin digute. Bideberriak San Migelgo bizi-modua aldatzen ari da, onerako edo txarrerako. Nai ta naiezkoa. Baño bere alderdi onak ere baditu ta automobilari eskerrak Aingeruaren egoak geiago zabaltzen ari dira: joan zan urtean igaz artio ikustatzen etzituen erri batzuk ikustatu zitun, Erriberri (Oñite), Tafalla, Martzilla, Agoitz eta Ilunberri (Lumbier); eta baliteke aurten beste batzuk bisitatzea. Automobilari ere esker, len lau illabete irauten zuen ibillaldiak aurten bi illabete t'ardi exkax irauten du. Ta, jakiña, nekerik, bustialdirik edo izerdirik gabe...

Alare azkonar larruz apaindutako mando arrek, Naparrako bide ta bidexkatan mendiak zear tunkuntun- zebillela, ba zuen alako zera goxo bat, automobilak ez tuna. Ikusten zutenendako beintzapein bai, ibilli bear zutenendako ezpazan ere.

Urteoro bezela, aurten ere erriz erri ibiltzen asi zaigu Aralarko Aingeruaren irudi beneragarria, errietako jende, etxe, mendi, azinda, soro, larre eta baztarrak oro bedeinkatuz, napar fededunen pozgarri.

Baztarrak oro esan dut, eta izan ere ala da, Iruña Uri nagusia ez ezik Naparroaren orko laurden bateko iri, erri, errixa, auzo ta zenbait baserri ta bordak ere ikusten baititu, denak bere ego zabalen babespean artzen ditula, Gurutze Santua beti bere Goiburua.

Ia 400 elizetan sartzen da urteoro, fededun kristauen otoiiz beroak, musu maitekorrek eta limosnatxoak artzera, ordañez jende ta toki guziaz bedeinkatuz eta napartarren fedea babestuz eta sendotuz.

Noizkoa ote erri-erri ibiltzeko oitura au? Auskalo! Dena dela, urteka ez baño gizaldika edo mendeka kontatu bearra dago, oitura onen asiera sekulaen lañopean murgildu eta galdu baita.

Urteak joan urteak etorri, jendearen Aingeruarenganako joera ta jai-era galdu edo epeldu ezetik, urtetik

## BERA BIDASOKOA erri ikusgarria



TRUKENEBORDA



TXANBURNEA

## EUSKERRAREN ALDEKO SAILLA'REN BERRIAK

### IGANTZIKO EUSKAL BESTA

Datorren Maiatzaren 15 egunean Igantzin Euskal Besta izango da bertako euskaldun mutiko eta nekatiskoiei Premioak eman bearrez.

Ona emen eginkizunak: Atsaldeko lauetan: BEZPERAK.

Ondorean:

1'go: Udaletxean, Premioen Banaketa.

2'gn: Iruñeko «Mutiko Alaiak» Elkartearen dantzari taldeak euskal dantza batzuek dantzatuko dituzte.

3'gn: Naparroko Bertsolarien Alderdiko zeingeiagoa.

Saio ontara Baztan, Bertizarana. Doneztebeko eskualde, Maldaerrea, Ultzama, Anue, Atez, Erro, Esteribar, Saraitzu, Aezkoa, Olaibar, Odieta, Sunbille, Urdazubi, Zugarramurdi, Amaiur, Luzaide, eta Bidasoko Bortz Irietako bertsolariak agertu ditezke.

Oarrak: Iruñeko Euskal kontuesale famatua den Peru Txiki birtartean ariko da. Euskaltzaindiak (Euskal Akademia) Txapelketa zuzenduko du.

Txapelketako Sariak: Lenengoak Bi milla pezeta, Bigarrenak milla pezeta, eta gañerakoek bosteuna pezeta artuko dituzte.

## ERRITAKO TXABOLAK

Bakoitzarendako bere erria bezalakorik ez! Eta etxeak? Etxe berriak egin ondoan, lurpeko zulo beltzak utzi nahi ez dituztenak ere, gustora zeuden nunbait beren txaboletan!

Alare, gauzak direna, dira; eta ez guk nahi ginukena. Gure artean bezela: badira erri txukun, garbi eta politak; eta bestalde, aurpegia garbitzeak kalte aundirik egingo ez lieken frango-re badugu.

Batzutan egin dira kaleak eta, xebeberria; zapeta berriak jantzi ta, eguneroko arropan, galtzik gabe, festara ateratzen den gizon tresondagari bat iduri dute etxe gaixoak. Eta ori aurpegira begiratu-ta! Bizkarrez, ez ikustea askoz obe...

Erri askotako baztarrak obe da, bai, ez ikustea. Ollategi baño, axerizulo ta obeki esana izango litzake. Beti ala izan dira, egia da: Inork ez ikusteko eginak ziren. Ifernuko etsaiari etzaio gogoratzen bide-berria andik botatzea! Ura lotsako baztarrak!

Txabolakeri oiekin zer egin orai? Diputazioak diona: bota. Kendu bideberri baztarreko sutegi beltz, estalpe zar eta kobakeri guziak. Jende itxuran jarri gauzak.

Bildur naiz alare esan orri etzaiola kasu aundirik egingo; eta izango da norbait txabiske berri egiten asiko dena ere. Odolean dugu aginduaren kontrakoa egi to...

Ori bai; gure erria bezalakorik, ez! Politena, ederrena eta garbiena. Eta gu itzauntzienak.

Beratar baxerri jator eta iaioak. Aurki Berako borda geienak berriztatuz izango dira, bertako Alkate Jauna dan Alfonso Yantzik eragiñik, etxeonagusien lankidego eta borondatearekin.

dilla beste errientzako, eta gure zorion sutsua Yantzi jaunari. Baztango Almandotzek ere erri guziko ederketa eta apaindura egin berria du, esaten digutenez. Gure zorionik beroenak Almandotz erriari, baita erriko eta Baztango Agintariei ere.

Erakutsi on au jarraibide izan de-



## PEDRO DE AXULAR (III)

### ORIXE IZKIRIAZAILLEAK AXULARREZ DIONA GUERO LIBURUAREN EDIZIONEAK

Ospe haundiko LARRAMENDIK (1748), bere COROGRAFIA, liburu ezinago baliotsuan, dio: «...En Labort se han dedicado más que en ninguna otra parte, á hablar y escribir en vascuence, y á predicar la palabra de Dios con toda decencia, limpieza y eficacia...».

Hau dudarik gabe Axularren Guero liburuari zor zaio geyenik, bere yarraizaleak izan zirelako *Pouvreau*, *Materre*, *Oihenart*, *Hariz-mendi*, *Tartas*, *Darambillaga*, *Gasteluzar*. — Oraño ere haren maisgoa ez da itzali idazlarietan.

Huna orai *Mikolas Ormaetxea (Orix)* idazlari aipatuaren iritzia: «Peru Axular duzu aurki euskal idazlerik bikainena orintsudaino...» «Damurik ez dugu ikusiko nai bezain laister GUERO-ren ekoizpen edo edizioe berria! Axular bezalako idazle asko izan balitu euskarak, dagon baiño landuagoa zegoen onezkerok». — Hau izkiriatu zen ezkerotik (1927), bi edizioe onak agertu dira, LECUONARENA bata, eta erdal itzulpen batekin bestea, VILLASANTE-rena.

*Orix*-k Axularren tankeraz eta estiloaz mintzo denean dio: «Axularren asma da, burutapena (pensamendua), den bezala ta margi agertzea, ta ez dijoa igesi beste asko bezala, buruan daukana adieraztetik».

«Asko ta asko gaur ere erderaren igesi dijoazela, burutapenaren igesi dabilta. Ala ere Axularrek euskal itz eder ugari ba du, »Mendiburuk baiño ugariko».


Gure autore unen liburuak bost edizioe izan ditu; lehenbizikoa, 1643'garren urtean, egilleak behar bada ez ikusia, 1644 urtean hila baizen. Bigarren estalirik edo ixilpean agerturik, urtea mar-katzen ez duela; textoan itzez itz lehenbizikoa bezala delarik, azalean bere izen-burua bestela agertzen zaigu; *Guero* guero. Ez da jakiten ziurki, baiñan uste da, 40 urte edo ala geroago agertu zela bigarren edizioe hau, nunbait lehenbizikoaren arrakasta bete baten ondorioz; lehenbizikoaz iyeki gutti gelditu, eta alde bigarrenekoaz aunitz geiago; naiz orai urri diran azken hauek ere, eta salneurri goretara eltzen.

Irugarren edizioe 1864 urtekoa da, Inchauspe idazlariak argitara emana; ekoizpen unek ezta ainbat balio, ezen editoreak Axularren mintzoa aldatu du, eta batzuetan zati osoak ixil ere, dituen gordinkeri batzuen aitzakiaz. Laugarrena, itzez-itz lehenbiziko edizioeatik hartua; horduko grafia egungo erara aldatua, orako irakurleari erreztasun geiago eman naiez, Manuel LECUONA euskal-zainak argitaratua, aitzin-solas luze batekin, eta L. MICHELENA-k lagundurik.

(Jarraituko zaio)

A. APAT-ECHEBARNE

## NAPARROAKO IKASTETXE NAGUSIA Euskera eta Euskal Yakintzaren alde



Naparroako Ikastetxe Nagusiak, beste Yakintza-Eskolen artean, Eskola berezia badu Euskal Yakintzari dagokiona; ona emen bere izena: «Euskal Yakintza eta Izkuntzaren Erakustokia».

Katedra edo Erakustoki onek iru atal dauka: 1'goa, Euskeraren erakastea, Etxaide andereñoaren ardurapean; 2'gna, Euskeraren yakintzari buruzko ikasketak, izkuntzalari jakintsu den Luis Mitxelena Jaunak emana, eta 3'gna, Euskalerriri dagokion aintzifeko eta oraingo yakintza (Euskal etnografia) Ataungo Erakaste famatua den J. M. Barandiaran Apaiz Jaun Agurgarriaren kontura.

Erakustoki onek Naparroako Diputazioaren laguntzari eskerrak bere eginbearrei eusten dizkie. Urteoro gure Fuedorun Diputazioak eun ta berrogeitamaika mila pezeta Unibersidedeari ematen dizkio «Euskal Yakintza eta Izkuntzaren Erakustokia» aldeko laguntza moduan.

Gure pozezko txaloak Unibersidade eta Diputazioarendako.

Gure anaia nagusi den «Zeruko Argia» asterokoaren 158 garrenaren lumeroan (1966, Epailak, 6 eguneko) azken orrialdean Naparroko Ikastetxe Nagusiari buruzko irakurle badu, iru fotoz lagundua, eta orri guziaz betetzen duena. Idazlan ori oso jakingarri eta interesduna da; gogoz gure irakurleak zirikatzen eta deituerazten ditugu leitu dezaten. Milla esker «Zeruko Argia» astekari onari.

# Ama Lur

## Euskaldunon lenengo pelikula

AMA LUR izenak dena esaten du. Izan ere, pelikula onen gaia euskaldun seme guztion ama dan Lur au dugu. LUR onek Euskalerrri osoa esan nai du, bere lur, arkaitz, itsaso, abere, gizon ta guzti. Lurralde bakoitzak bere alako tankera, izaera izaten du. Bereizitasun oni bagagozkio, ezin ukatu Euskalerrria oso aberatsa dela ontan; nortasun sakon baten jabe da.

Auxe da AMA LUR'ek eman nai diguna: gure nortasuna, gure euskal-arima. Ortarako, jakiña, euskaldunak «zer» egiten duen, «nola» bizi den, «nun», ta abar jasotzen ari dira pelikula onen zuzendariak. Izan dute ta izanen dute lana Nestor Basterretxea ta Fernando Larrukert jaunek.

Dokumental bat da. Ordu ta erdi iraungo omen du gutxienez.

Amar bat illabete dira AMA LUR jaiotzen asi zela. Lenengo egunetan onako erri oek bisitatu zituzten: Oyarzun, Ondarrabi, Ernani, Orio, Zarautz, Getari, Enderlaza, Igantzi, Almandoz, Olagüe, Sorauren, Arre, Tafalla, Erri-berri, tab. Ikusten denez, Naparroak izango du zer esan eta erakutsi. Nola ez, AMA LUR onen biotza izanez? Ageri denez, Naparroako erri aitatuena auetxek dira: Falces, Iruña ta Tudela (Muskaria) zezenkontuan. «Baso Jaun» zatian Irati, Falces, Tudela ta Kaparroso. Artaldean mugimenduak, Naparroatik dijoaztenean eta Bardenasetara abiatzen diranean.

Euskal udazkenari buruz ari danean, Obanos, Auritze, Luzaide, Irati, Orreaga tab. ikusiko dira. Negua, Auritzen, Orreagan, Isaban, Erronkarin eta Otsagabin artu dute.

Dantzak artzeko orduan, Luzaidekoak eta Otsagabikoak. Otsagabin, gaiñera, beste oitura zahar bat jaso nai dute «Eriotza» deritzaion zatian. Erri ontan, gauregun ere, edonor ez dan norbaiten illetan, gizon-emakumeak antziñako jantzi apaintzen omen dira.

Naparroa AMA LUR onen zati eder eta zabal bat da. Pelikula au intresduna izango da euskaldun guzientzako.

## PELOTA JOKUAK

### ESKUZKO PELOTA-TXAPELGOAK

Bigarren maillako eskuzko bizibideko Pelotarien Txapelketa bakutu da. Anduezak txapela artu du Retegi garaiturik. Jokaldiak etzun kolorerik izan, Andueza indartsu agertu zan, eta Retegi aulegi orde. Partido ondorean Retegik esan zuen otarixean zeuden pelota guziak bere jokuari etzegozkiotela, eta beste pelotekin, bi pelotariei zegozkienekin, beste ollarra batek orain kantatuko lukenik.

X X X

Garcia Ariño lenengoak ere aise bere partidua galdu zuen; Atano Amargarrena garaizalea izan zen. Zenbat aldiz Atanok eskuz-esku Garcia Ariño irabazi duen? Ez dakit ziurki, baiño lau gutxienez izan dirala uste dut. Emen ezta aitzagirik, pelota onekin edo orrekin, frontoi ontan edo artan Atano beti nagusi.

Lenen maillako eskuzko Pelotarien Azken Txapelketa Nagusia, Eibarren, Maiatzaren 8 egunean, izango da. Azkarate berrirori garaidun? Atanoaren eskuek, nere ustez, garaipenaren giltza daukate. Gogor eta sendoak baldin badaude beren jabeari txapela jarriko diote, baiñan makal eta aulak izanki Azkarataren buruari atxikituko diote beste urte baterako.

X X X

Maitzaren 20 egunean, Iruñeko Xabierko Prantziskoren elizan, Retegi pelotaria Igoako neska gazte Marticorenarekin ezkondu zan. Gure goresmenak senar-emazte gazte.

X X X

Pelotari zaletuen Elkartasunen Txapelketak Donostian izango dira. Barcelonan jokatu bearrak ziran baiño iri onek zeingeiagoketa auei dagozkien frontoirik etzutelakoz Donostira eraman bear izan dituzte. Sei pelota-jokuera ariko dira: pala txikiz eta aundiz, erremontez, txisteraz, eta eskuz, binakaz eta banakaz. Txapelketa auetan Naparroa, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Cataluña, Errijoa ta Castillako Elkartasunak parte artuko dute. Maiatzaren 19 egunetik 22 egunera jokatuko dira. Kopa norendako? Gipuzkoa ta Naparroan artean, uste denez, izango da artuko duen Elkartasuna.

### BAZTANGO ESKUZKO PILOTA TXAPELKETA

Pilota txapelketetan dago pilota yokoaren itxaropena, ori bixtan dagon gauza da eta eztago ukatzerik. Olaxe atera dire: Bergara, Erretegi,

Pierola, Lajos, Ezkurra ta bertze guziek ere. Gazte auk txapelketetako mindeitzean bertze dire eta aintzinat ere olako hortze ainhertze azteko, pilota leiaketak egin bear mindeitzeko landareak errokatu daitzin.

Aurten ere igaz bezala Erratzuko «Etxelebert» eko pilota lekuan txapelketa bat antolatuta dute eta bearrantan ari dire, Baztan-Bidasoko pilotari oberenak. Txapelketa au bi malletan berezia dago eta bakoitzean sei bikote dire, denak gazteak eta denak Txapela erdiesteko naikeriarekin.

Baztango txapelketa au Apirileko illabetean asia da eta bi illabete yoanen dire dena akitu orduko. Baztandar pilotazaleek badugu igandero atsaldetako goxo bat igarotzeko bidea.



Zazpi urte. Bakarrik utzi dute maian. Andik pixka batera eldu da, dena misterio, bere amarengana.

—Ama; itsusi da, he! oi u giteal  
—Bai, aurra; oso itsusi. Ez da egin behar.

—Orduan, ez duzu oiurik eginen, he!... esne guzia ixuri zait, eta mai gaineko oiala busti!

\* \* \*

Nagusia edana eldu da etxera. Lenbiziko eskalerretan erori da zanpez, lurrera eta ezagutzarik gabe gelditu.

Medikua ekarri dute, eta «eter» edo ozpinik baduten galdegiten dio etxekoandeari.

—Ezetz!! Anisatua bakarrik...  
Medikua ezartzen dio sudur apian anisatu botoila, eta nun esnatzen den mozkorra:

—Or ez, jauna; or ez! Pixka bat beherago!

\* \* \*

Amak sagar bat ematen dio Battittari:

—To; partitzak kristau-eran.  
—Ama, nola da ori!

—Puska audiena bestieri emanez.

Battittak artzen du sagarra eta ematen dio bere arrebari:

—No; partitzan au kristau-eran...

\* \* \*

Etxekandariak, bere neskameari:  
—Kattalin. Jarlekuak beti autsez beterik ikusten ditut!

—Bai; ez da nehor etortzen jartzera ta!

\* \* \*

Moda berria:  
—I, Beñat; nola azitzen ari aiz txerri ori? Egun batez leher egin artio jatera ematen diok, eta gero bi eguneh baru...  
—Zer dakik ik gauz auen berri! Nik urdaia txuri ta gorri nahi diat; xerra bat xuri eta xerra bat ginar.

## OARRA

Naparroko Diputazioaren «Principe de Viana» izenezko aldizkarlaren geigarri dan illeroko au napar-euskaldunei bialtzeko soil-soilki argitaratzen da, gure euskaldun menditarrak euskeraz irakurtzen trebe eta oitu ditezen eta bide batez beren jatorrizko mintzaeraz izkribitzen edo, idazten ikasi dezaten. Ala ere gure anaia diran Euskalerrriko beste Diputazioei baita Apeztegi, Albistari, Aldizkari, Eguneroko eta Irratiei ere, ala nola Bazkun eta Elkargo batzuei ere, bialtzen zaizkie. Onelaxe Euskalerrriko Elkargo eta Bazkunde nai duten guziet, eskaria egiten baldin badigute, bialduko dizkiegu.

Euskeraren alde lan egin nai duten napar guziak onartuko dugu. Idazlanak bi izkuntzetakoak izan ditezke (euskeraz, soilik, ala euskeraz eta erderaz nai baldin bada). Edozein gibelaldiko edo gaurko gaia jakingarri eta irakurgarri izan ditek. Alde aurretik gure oraingo eta geroko idazlankidei gure ezagutza eta eskerronak agertzen eta adierazten dizkiotegu.

Si desea recibir en su casa esta publicación, exclusivamente dentro de Navarra, envíe este Boletín a: INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA, Calle Ansoleaga, 10. PAMPLONA.

### BOLETIN DE INSCRIPCION

Don .....

con domicilio en la localidad de .....

Calle ..... N.º .....

desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».